

Hiritarkeria eta Kapitalaren Kultura

Laburpena: *Hiritarkeriak eta kapitalaren kulturak obediencia ilustratua aldarrikatzen dute, partikularitasunez garbitutako espazio publiko unibertsalak izan daitezela hiriak. Espazio pribatua piztiarena egiten jarrai dezakegu, bortxatu, umiliatu, eta egoskor jarrita, pobre, euskaldun edo emakume zikin izaten jarraitu.*

Gako-hitzak: hiritarkeria, kapitala, kultura, espazio publikoa, obediencia

Abstract: *Citizenism and the culture of capital demand enlightened obedience; demand cities to be universal public spaces cleaned from particularities. However, in the private space you can keep on being a beast, raping, humiliating and, if you force me, being poor, Basque and woman.*

Keywords: citizenism, capital, culture, public space, obedience

Jule Goikoetxea

EHUko Zientzia Politikoetako irakaslea eta Gobernantza eta Ikasketa Politikoak Masterreko Zuzendaria



Jasotze data: 2015-09-27/ Onarpen data: 2015-12-28

Orain dela gutxi 2016ko Europako Kultur Hiriburuz idatzitako artikulu batean Artemisak, lehen belaunaldiko jainkosak, Atenea eta Afroditarekin eztabaidatzen zuen. «Zer da kultura, kulturazale maiteok? Hizkuntza? Artea? Ezagutza? Venus Victoriako dantzaldiak? Geure arbaso eta mitoez ari al gara edo geure herria zokoratu nahi dutenen jainkoen ohiturez?» galdetzen zuten Ateneak eta Afroditik. «Etorkizunaz ari gara ez geure aitzindariak, eta ez naiz sekula ongiaren babeslea izan, ezta gaizkiarena ere, neure samaldaren gerizatzaile besterik ez naiz» erantzun zuen Artemisak, kapitalaren ahots orraztuak. «Kapitala behar dugu, kapitalik gabe kulturarik ez, kultura gabe jainkosarik ez, jainkosarik gabe mitorik ez, mitorik gabe herririk ez. Ados gaude, ez gara sorkuntzaz eta abangoardiaz hitz egitera etorri, gu geure herriaz geure kapitalaz mintzatzeraz gatoz».

Zertaz ari gara bada, kulturaz ari garenean? Kapitalaz ari al gara? Hiriburuez edo gainbalioaz, edo biak aldi berean?

Hiria eta kultura elkarren eskutik doaz, elkarrekin jaio omen zirelako. Hiriak kultura sortu zuen kulturak hiria asmatu zuenean. Kulturgintza hirigintzaren zilbor-hestean dago kokatua Mendebaldeko zibilizazioan, greziar filosofia urbanotik edo polisetik hasi, hiri militar erromatarretatik igaro eta Tokio, Berlin edo New Yorkeko hiri globaletara ailegatu arte. Zer dute horiek guztiak amankomunean? Espazio publikoaren eraikuntza (neo)liberala, espazioaren kontzeptualizazio ilustratu eta burgesa.

Egun kulturari ematen diogun garrantzi analitiko eta estetiko iraultza burgesean kokatu behar dugu. Bertatik baitator kulturaren eta naturaren arteko era bateko aurkaritza. Natura espazio ez-politiko bezala ulertuko da; kultura, aldiz,

legearen, hezkuntzaren, arrazoiaren eta berdinen espazio izango da. Ez ahantzi izaki gizaki guztiak ez direla berdinak, emakumeak, adibidez, ez dira gizaki kultural eta politikoak izango, naturako izakiak baizik, ez-berdinak, diferenteak. Espazio publikotik kanporatuak izango dira ordura arte herria osatzen zuten gizabanako gehienak, eta, horregatik, politika gizon zuri aberatsek bakarrik egingo dute, kultura duten gizonak, alegia. Hortik dator espazio pribatuaren eta espazio publikoaren arteko desberdintasuna, sistema kontzeptual berdinean oinarritua. Espazio publikoak ahalbidetzen du kultura, naturari kontrajartzen zaion gizakion mundua, baina espazio publikoa ezin da edonon eraiki, espazio publikoak hiria behar du, espazio urbanoa baita espazio publikoa, eta espazio publikoa espazio politiko, legeen bitartez osatu eta kudeatzen den espazio: burgoa edo hiria. Horregatik genioen hiria kulturaren jatorritzat hartzen dela Mendebaldean, zuzenbide-estatuan oinarritutako demokrazia burgoen bilakaeraren ondorioa da, eta burgoen (hirien) funtsa lege positiboaren bidez gobernatutako espazio publikoa da.

«Horixe utzi diguzue hirugarren belaunaldikoei, disneygunez osatutako hiria» dio kolera Presentiak, jainkosa gazteenak, «musa pobre eta ahulak, hiritarrez bezituak, pasiorik gabeko kulturazaleak, kapitalak fotoa atera nahi duenean irribarre egiten duten ninfo ustelduak».

Zertaz ari gara kulturaz ari garenean? Sorkuntzaz, hausturaz eta abangoardiaz edo hiriaz, diruaz eta espazio publikoaz? Kulturaz mintzatzean libertimenduaz ari al gara, edo sufrimenduaz? Plazeraz edo esfortzuaz? Kulturaz ari garenean kulturaz edo kontrakulturaz ari gara?



Kultura hitzak diskurtso hegemonikoen marka darama, kasu honetan, kultura kapitalaren kultura da, hiriburuen kultura. Baina kapital globalak sortzen ditu hiri globalak eta hiri globalek sortzen dute kultura globala, kapitalaren kultura, alegia. Globalizazioa demokraziaren pribatizazioa den heinean, kultura globala globalizazioaren kultura da, kapitalaren kultura. Kapitalak (eta kapitalek, hiriburuek) sortzen duten kulturari aurre egiten dion *kontrakulturak*, aldiz, kontra-hegemoniaren marka darama, herritarren kultura da, pobreena, dirurik, etorkizunik eta eskubiderik ez dutenen kultura. «Nik kale soil bat dut, bankuz eta kotxez beterikoa ardoz ureztatua egunkariak ahaztua, etxerik gabeko zementuzko maitasuna lapurretak arintzen duena. Hori da geure artea, kapitalari bizirautea. Ez gara egiatasunaren eta originaltasunaren zale, ez dugu Europarren eredu estetiko eta morala izan nahi, guk sormena iruzur eta manipulaziorako erabiltzen dugu, halaxe egiten dugu aurrera kapitalaren erraieran eta horixe da geure ohitura, geure eguneroko kultura» zioen Presentiak, jainkosa gazteenak. Herria eta kapitala guztiz kontrajarriak direla esan nahi du, kapitalak herria akabatzen baitu, globalizazioak demokrazia hiltzen duen bezalaxe.

Kapital globalaren bidez guztiona beharko lukeen espazio publikoa eta kultura gutxi batzuen esku pribatuetan geratu da. «Ez al zen kultura herriaren funtsa, herrien existentzia ahalbidetzen zuena?» galdetzen zion Ateneak Artemisari. «Ez al zen espazio publikoa eskubideen,

berdinen eta askatasunaren espazioa?». Natura atzean utzirik, segurtasuna, arrazoia eta duintasuna ahalbidetuko zituen hiriak; demokrazia, alegia. Horrela kontzeptualizatu ziren, orain dela bizpahiru mende, hiritartasuna eta espazio publikoa. Baina kapitalismoak, herritartasuna hiritartasuna bilakatzen du, eta hiritartasuna *hiritarkeria*, zeinaren bidez kulturak komunitatearen itsasgarri izateari uzten dion eta herriaren desagerpenari ekiten dion.

Hiritarkeriak liberalismo ilustratua du iturburu eta egungo europar errepublikanismoaren eta sozialdemokraziaren funtsezko mantra da. Hitz gutxitan, bake soziala lortzeko kapitalismoa eta espazio publikoa (zibikoa) uztartu nahi dituztenen ideologia da. Manuel Delgadok dioen moduan, hiritarkeria kapitalismoaren aldaketa etikoaren alde dauden mugimendu sozial, sindikatu eta alderdien diskurtso bilakatu da. Balio demokratiko abstraktuen eta partehartze zibikoaren izenean mobilizazio indartsuak deitzen dira, ez kapitalismo patriarkalaren kontra, azken horren gehiegikerien kontra baizik (espekulazioa, pribatizazioa eta esplotazioa «sexu»aren eta «arraz»aren arabera).

Mugimendu eta alderdion oinarrian ideia politiko zehatzak baino gehiago sentimendu partekatuak daude, bidegabekeriaren kontzeptualizazio moralak, bake soziala eta produkzio eraginkorra ahalbidetzen dituen moral liberal unibertuala. Ez, *hiritarkeriadun* guztiak ez dira Kant edo Hegel, obreroagoak dira eta Mouffe eta Laclau dituzte

Irudia ~ Alfredo Jaar, *Kultur = Kapital*, 2012, neona, 100 x 800 zm.

Iturria ~ Thomas Schulte Galerie, Berlin

bide-erakusle, hau da, ez dira Merkel, Lula baizik, baina ez dute Brasilik, Alemaniako turismo mediterranea soilik, beraz, Lula ere ez dira. Nortzuk dira? Mugimendu eta alderdi *hiritarkeriazaleak* langile-klaseari eta patriarkatuari erreferentziarik egiten ez diotenak dira, eta oso-oso modernoak baldin badira, naziogintzari ere omisio. Politologiaren ikuspegitik guztiz eskuindarrak diren ideiak txertatu nahi dituzte: naziogintzarik eta estatugintzarik gabeko zibilizaziogintza nahi dute, herririk gabeko hiritar zibikoen Estatu globala, alegia.

Hori da kultura kosmopolita, hori da kapitalaren kultura: unibertsala, zuria, gizona, garbia eta diruduna.

Baina ez al da hau betiko Robespierre analogikoa? *Habermas Sozietate Anonimoaren* patriotismo konstituzionala? Euroalemaniar Batasunaren mito fundatzailea? Ez al da hau gure Euskal Hiria? Gizon-ilustratu-goi-eta-ertain-klase-potoldu-zuriek duten gure herrirako makro-estrategia postsoberanoa? Kultura kosmopolita ulertzeko hori baita gakoa: kultura ez da herriarena, soberania herriarena ez den moduan. Kultura, eta, beraz, soberania edo herri-boterea kapitalarenak dira: kapitalaren kultura dira kultur kapitalak, ez herriarenak. Kapitalaren kulturak ez du artea benetako haustura eta errebindikazioarekin lotzen, guztiz alderantziz, kontinuitatearekin lotzen du, statu quoa kontserbatu eta birsortzearekin.

Kapitalaren kulturen ez dago herririk, ez dago komunitate politikorik, kapitalak gobernatzen dituen ugaztun moral unibertsalak soilik. Ez dago titirik ez azalik ez odolirik. Hiritarrak soilik. Horrexegatik, *hiritarkeriazale* ilustratuei berdin die eskolan, administrazioan, osasungintzan euskaraz edo katalanez egiten ez bada, ugaztun unibertsalek hizkuntza unibertsalean aritzea baita helburua.

Hiritarkeriak eta haren kapitalaren kulturak obedientzia ilustratua aldarrikatzen dute, partikulartasunez garbitutako (ez klaserik ez generorik ez naziorik ez emoziorik) espazio publiko unibertsalak izan daitezela geure hiriak. Aldiz, espazio pribatuan piztiarena egiten jarrai dezakegu, bortxatu, umiliatu, baita, egoskor jarrita, pobre, euskaldun, beltz edo emakume zikin izaten jarraitu ere.

///